

EUSKAL-FESTAK ELGOIBAR-EN

1907

Euskal-festen 26^{garren} urtea

Donostiako Euskal-itx Jostaldien Batzarreak, gure euskara eder, itzkribu eta musika jatorriztik ditugunak alegiñ guztian gorde eta zabalteko eginpideari beti leyal, argitaratzen du, Gipuzkoa-ko Diputazio chit goituaren erabakiari jarraiturik, eta bere baimenarekin aurten Elgoibar en egin bear diran Euskal-festen azaldea, prestaturik ontarako ondoren agertzen diran indar neurtze eta jostagudak.

AZALDEA

Izkribalarien indar neurtzea

Euskal-itzkuntzajakindeak zabaltzen sayatzen diran izkribatzalleak lanbide onragarri onetan aurrera ere jarraitzeko limurkaritzat, emango zaizkate ondorengo sari oek

1.ko Berreun ta berrogeita amar pezetako sari bat eta bitezarra, euskarazko itzlarri eta Gipuzkoa-ko izkuntzan egintako lanik onenari, adierazten dirala, Elgoibar-ko omen kondairatsua k.

2.garren Eunda berrogeita amar pezetako sariya eta litezarra, Gipuzkoako izkuntzan, eta itzlarrietan, esan dan Probintziko chertu gannaduen gaiñ, aurrerakisunak onduena erakaskisunez adierazten dituenari

3.garren Berrogeita amar pezetako sari bat eta bitezarra, edozeiñ gai, neurri eta euskal izkera motan jarritako itz-neurtu edo lototz moldaera ederrenaren egilleari.

4.garren Eun pezetako sari bat eta bitezarra, jostiruditar moldaerik onena, itz-neurtu edo larrietan eta Gipuzkoako euskal-izkeran egiten duenari, gaya izan litekeela ala negargarri nola pozgarri motakoa. Gai ontan artuak izango dira ere, bakarizketak, oraingo erako lauki, eta lengo ipui, kondairazkuak.

5.garren Eun pezetako sari bat eta bitezarra, Elgoibar-ko elisachoena gañean, Gipuzkoako izkuntzan, biursakintzik onenaren egillearentzat.

6.garren Berrogeita amar pezetako sari bat eta bitezarra 15etik 30 urtera bitarteko euskal irakurlerik onenari, Gipuzkoako izkeran eta Batzar epalleak siñalatuko dion beste batean, ala itz-larri edo neur-tuetan.

7.garren Dibujatzeko kajacho edo gis ontako beste sari batzuek, ordu laurden batean euskaraz ongiyena irakurri eta izkribatzen neska eta mutillentzat, nola euskaratik gatzelanira, ala gatzelanitik euskera, obekiena biurtzen dutenayentzat.

Musikalarien indar-neurtzea

1.ko Berreunda berrogeita amar pezetako sari bat eta bitezarra, Euskal-erriko kantak gayan arturik ebatzorkiñ, aurreozkiñ, edo sinfonirik onena orkesta edo bandarakoan egillearentzat.

Moldaera onek ez du izan bearko euskal soñuen pillatza, baizikan gai bat edo geyagorekin, aunditnsun ugaritsuen egintza.

Egilleak jakiñ-arazi bearko du zer euskal soñu gairekin antolatu duben moldaera.

2.garren Larogei pezetako sari bat eta bitezarra, danboliñ banda osorako egokiena antolatua aurkezten dan zortzikorik jatorrena danari bere otseztietan. Banda osoak izan bear ditu, bi chistu-danboliñ, chistu lodi bat eta atabala.

3.garren Eun pezetako sari bat eta bitezarra, zortziko ongiyena jo-

tzen duben danbolin-banda osoari, ala berean beren gozozko beste zer-bait soñu jotzen dutenari.

4.garren Eun pezetako sari bat eta bitezarra, lau abotsetan, giza-semeentzat kanta moldaera, edozer euskal-doñuetatik gaya arturik egokiena antolatzen duenarentzat.

Egilleak jakiñ arazi bearco du zer kanta artu duben gaitzat.

5.garren Eun pezetako sari bat eta bitezarra, iru abotsetan aurrentzat, kanta zar bat egokiena moldatzen duenarentzat.

Jakiñ arazi bearco du, zer kanta baliya zayon gaitzat.

Gei ontan ala aurrekoan aurkeztu litzazteke kanta mota bat baño geyago. Lan luzia nola Ian laburrak, ez diyote bereistasunik emango egilleai. Eun pezetako sari bat eta bitezarra, egokiena kantatzen duben aurre-n kantaritaldeari.

Guchiyenez izan bearco dute bederatzi kantari.

Bertsolariyen jolasguda

Egingo da euskal-erriko lau bertsolarien elkarguda, emanik lauren-tzat larogei pezetako sariya.

Oarkerak

1.ko Indar-neurtzeoetarako aukeratzen diran Ian guziak biralduak izan bear dute korrioaren bidez paper bilgo ziertotu edo zertifikatuetan, zuzende onekin. Señor secretario del Consistorio de Juegos Florales Euskaros.—San Sebastián (Constitución 7).

2.garren Lan guziak bialdu bear dira indar neurtze oetarako, esan dan eran, datorren Uztaillaren amar-erako.

3.garren Lan bakoitzak ekarriko du barrenen papez-bilgo ichi bat, ipiñirik bertan izkribatzallearen izena eta izegaña, non bizi dan agertzen duela.

Ez du baliyoko ez izenakin lanik aurkezteak.

4.garren Lan guztietan egilliak, aitortu bearco du, bere lanaren oñean jatorrizko lana dan edo zer gairekin egin duben antolamendua.

5.garren Musikalarien lanak esamiñatuko dituen Batzar-epallea egingo dute iru maisu euskaldun-jakintsu ezagutuak, eta bere erabaki-daren kontra alchatzeko ez da eskubiderik izango, ala nola izango ez dan Euskal-itx jostaldien batzarreaganako izkribatzalleen artean,

6.garren Euskal-itz jostaldien batzarre, eta musikariaren batzar epallearen erabakiz, geldi litezke sari gabe, lan baliyaz iristen ez diranak, ala nola geldi litezken lan guztiyak saririk gabe, siñalatzten zaiztelarik aldeera edo aipamen onragarri batzarrearen iritziz eman bear diranak.

7.garren Len iru bider sarituak azalde onen gei-en batean ez litezke aukeztu sari billa, bañan ontzat artuko dira emanik aipamen onragarriyak Batzarrearen erabakiz baliyo badute.

8.garren Ez da baliyo geyagokua izango lan luze edo ugaritsua.

9.garren Indar neurtze ontan aurkezteko prestatu nai duten danbolin banda oso eta kantaritalde aur-enai, emango zaizte alde zurretik sarituak izaten diran paper-irudiak.

Ezingo dira agertu chistulari len banda batean agerturik beste bandan.

10.garren Sarituak izaten diran izkirazko moldaera guziak, jostirudikoaz kanpora albistari EUSKAL-ERRIA-an agerkidatuak izango dira.

11.garren Batzarren goarpelariak, irakurriko du moldaera erabakida sari emaldiko otsandigoan.

12.garren Irakurriko dira sarituak izaten diran izkribuetatik ortarako luziegi ez diranak.

13.garren Emango zaizkate sari, bitezar eta osto moldizkiratuak, oek jasotzera aurkezten diran egilleai.

Donostiari Uzta-ren 3an 1907an.

TORIBIO ALZAGA,
Goarpelaria.

ALFREDO LAFFIT-TAR ETA OBINETA,
Dianagusia.

Diputazio chit goituaren bilgumak ontzat emana Garagarilla-ren 13an 1907an.

